Osakidetza

ZUZENDARITZA NAGUSIA
DIRECCIÓN GENERAL

HAURREN HORTZAK ZAINTZEKO PROGRAMA

PADI - 2024

Euskadiko 7-15 urteko Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren garapenari buruzko urteko txostena.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

AURKIBIDEA Orrialdea

SARRERA **2**

PADIren baliabide asistentziala **3**

2024KO EKITALDIAREN EMAITZAK

1. **Erabilera** **4**
2. **Bertaratzearen maiztasuna** **8**
3. **Hortz-asistentzia** **10**
4. **Fakturazioa** **13**

HAURREN HORTZEN OSASUNA EUSKADIN **14**
Azterlan epidemiologikoak (1988 / 1998 / 2008 / 2018 / 2023)

ONDORIOAK **16**

I. ERANSKINA **18**
PADIren erabilera lurralde historiko bakoitzean, adin-taldeen, hornitzeko moduaren (publikoa/itundua) eta sexuaren arabera, 2024ko ekitaldian

II. ERANSKINA **21**
PADIren erabilera orokorra, udalerrien eta hornidura-motaren arabera (Osakidetza/Itundua), 2024an

SARRERA


Joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren amaieran hasitako Eusko Jaurlaritzaren hortzen osasuneko politikak haurren hortzak zaintzeko sistema bat sortzea jasotzen zuen, haien behin betiko hortzeria erupzioaren eta heldutasunaren adinetan beharrezko zaintzak jasotzen dituela bermatzeko, txantxarren prebalentzia murrizteko eta heldu gisa hortzen osasun eta osasun orokor hobea izateko.

EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko 118/1990 Dekretua argitaratzeak haren funtzio estrategikoa azpimarratu zuen, eta PADI hortzak zaintzeko sistema oinarrizkoa, unibertsala eta kalitatezkoa gisa definitu zuen. Ondoren, 2023ko maiatzaren 5ean, EHAAn argitaratu zen ***37/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzkoa***. Horren bidez, aurreko dekretuko prestazio berberak mantendu ziren, eta, aldi berean, eguneraketak sartu ziren zerbitzu-zorroan. Bestalde, programan sartu nahi diren klinikak eta profesionalak gaitzeko prozedura erraztu eta abiarazi zen.

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302085e.pdf

2024ko ekitaldian PADIk 35 urte bete zituen. 1990etik aurrera, eta ondoz ondoko bederatzi ekitalditan zehar, PADIk 7 urte betetzen zituzten umeen kohortea sartu zuen ekitaldi bakoitzean, eta sisteman mantendu zituen aurrez barne hartutako biztanleak. Hala, 1998an, 7-15 urteko xede-biztanleria osoak bermatuta zuen dekretuan aurreikusitako hortzen asistentzia. 1. irudiak grafikoki erakusten du zenbat haur artatu diren ezarpen inkrementalaren alditik 2024ko ekitaldira arte.

1. irudia: PADIren ezarpen inkrementala eta garapena, 1990-2024.



Aldaketa demografikoek zehazten dute ondorengo ekitaldietan PADIrako eskubidea duten 7-15 urteko haurren kopurua. 1. irudiak goranzko joera erakusten du, 2005ean hasi eta 2017ra arte jarraitu duena, azkenean 7 eta 15 urte arteko 190.000 ume inguruan egonkortuz.


EAEn bizi diren 7-15 urteko haur eta gazteen multzoa 187.901 lagunera iritsi zen 2024an: 96.409 mutil eta 91.492 neska. (*EUSTAT: Euskal AEko biztanleria, jaiotza-urtearen arabera. 2024ko urtarrila*).

PADIren baliabide asistentziala:

- Osasun Sailak gaitutako 1.092 dentista daude, 708 klinika itundutan sakabanatuta.
- Osakidetzako 38 dentista 31 osasun-zentrotan.
- 95 udalerrik dute PADIrako kontsulta (EAEko 252 udalerrien % 38).

(*https://www.osakidetza.euskadi.eus/ad42aRegPADIWar/centros/consultaClinica*).

2. irudia: PADIren administrazio-zirkuitua.



Urte bakoitzaren hasieran, Osakidetzako Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioak 7 eta 15 urte bitarteko haurrak dituzten familiak gonbidatzen ditu beren erreferentziazko dentista aukera dezaten. Horretarako, informazio-gutun bat bidaltzen zaie etxera, QR kode batekin, programari atxikitako kontsulten zerrendara sartzeko. Horrekin batera, onarpen-taloi bat ere bidaltzen zaie; hori, osasun-txartelarekin batera, hautatutako kontsultan entregatu beharko dute, odontologoek sina dezaten eta informatikoki erregistra dezaten.

Programari atxikitako zentroek, halaber, urtean zehar egindako jarduera asistentziala erregistratzen dute, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ordaintzen ditu tarifazio-sistema misto baten bidez:


- Kapitazio bidezko ordainketa (edo urteko taloi bidezko ordainketa): Urte bakoitzean kontsultan erregistratutako haur bakoitzeko ordaindutako zenbateko finkoa. Ahoko osasuna mantentzeko oinarrizko tratamendu prebentiboak eta konpontzaileak hartzen ditu barne.

- Hortz-egintzagatiko ordainketa: Tratamendu espezifikoengatiko ordaindutako kopuru gehigarria, PADIren dekretuan zehaztutako traumatismoek, malformazioek edo egoera kliniko bereziek eragindakoa.

2024. EKITALDIKO EMAITZAK.

I. Erabilera.

3. irudia: Erabilera globala - PADI 2024



2024an, EAEn bizi ziren eta PADIrako eskubidea zuten 7-15 urteko biztanleak 187.901 izan ziren.

122.533 haur artatu ziren:
- 114.943 sektore pribatuko gaitutako kontsultetan.
- 7.590 Osakidetzako kontsulta publikoetan.

Biztanleria osoarekiko estaldura % 65,21ekoa izan zen:
- % 61,17 itundutako kontsultei dagokie.
- % 4,04 Osakidetzako kontsultei dagokie.

Artatutako biztanleriaren artean, % 94k sektore pribatua erabili zuen, eta gainerako % 6k Osakidetzako kontsultak.

I. taula: 7-15 urteko biztanleriaren banaketa EAEn, adin-taldearen eta sexuaren arabera (2024)

Adina	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	7-15	Kuota %
Mutilak	9.276	9.852	10.346	10.551	10.456	11.359	11.380	11.553	11.636	**96.409**	**% 51,31**
Neskak	8.684	9.487	9.772	10.204	9.963	10.508	10.993	11.143	10.738	**91.492**	**% 48,69**
Guztira	17.960	19.339	20.118	20.755	20.419	21.867	22.373	22.696	22.374	**187.901**	% 100,00

II. taula: PADIn artatutako biztanleria, adinaren eta sexuaren arabera - 2024

Adina	MUTILAK		NESKAK		GUZTIRA	% OROKORRA
7	5.984	% 33,32	5.748	% 32,00	11.732	% 65,32
8	6.502	% 33,62	6.439	% 33,30	12.941	% 66,92
9	6.942	% 34,51	6.583	% 32,72	13.525	% 67,23
10	7.215	% 34,76	6.958	% 33,52	14.173	% 68,29
11	7.068	% 34,61	6.832	% 33,46	13.900	% 68,07
12	7.570	% 34,62	6.968	% 31,87	14.538	% 66,48
13	7.404	% 33,09	7.091	% 31,69	14.495	% 64,79
14	7.195	% 31,70	6.924	% 30,51	14.119	% 62,21
15	6.883	% 30,76	6.227	% 27,83	13.110	% 58,59
PADI	**62.763**	**% 33,40**	**59.770**	**% 31,81**	**122.533**	% 65,21

III. taula: Artatutako biztanleria, sexuaren eta sare asistentzialaren arabera - 2024


	BIZTANLERIA		Arreta OSAKIDETZAN		Arreta ITUNDUA		ARTATUTAKO BIZTANLERIA		EZ DIRA BERTARATU	
Mutilak	96.409	*% 100*	4007	*% 2,13*	58.756	*% 31,27*	62.763	***% 33,40***	33.646	% 17,91
Neskak	91.492	*% 100*	3583	*% 1,91*	56.187	% 29,90	59.770	***% 31,81***	31.722	% 16,88
Guztira	187.901	*% 100*	7.590	*% 4,04*	114.943	*% 61,17*	**122.533**	***% 65,21***	65.368	% 34,79

IV. taula: Artatutako biztanleriaren bilakaera, sare asistentzialaren arabera - 2015 - 2024

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Osakidetza	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457	5.984	6.104	6.602	**7.590**
Itundua	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904	114.315	111.510	**114.943**
Artatutakoak	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888	120.419	118.112	**122.533**
Artatu gabeak	61.678	63.272	65.462	59.753	61.042	71.529	69.280	68.941	75.431	**65.368**
Biztanleria	185.703	190.618	194.752	190.736	191.928	191.830	192.168	189.360	193.543	**187.901**

4. irudian eta V. taulan, PADIren 2024ko erabilera-ehunekoa (kuota) eta azken hamarkadan izan duen bilakaera erakusten dira, erabilitako sare asistentzialaren arabera (itundua edo publikoa). 2024an, 100 haurretatik 61 sektore pribatuko dentista gaituek artatu zituzten, 4 Osakidetzako dentistek eta 35 ez ziren joan PADIren azterketara.

4. irudia: Artatutako biztanleria osoaren ehunekoaren bilakaera, sare asistentzialaren arabera – 2015-2024



V. taula: Artatutako biztanleria osoaren ehunekoaren bilakaera, sare asistentzialaren arabera – 2015-2024

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Osakidetza	% 5	% 5	% 4	% 4	% 4	% 3	% 3	% 3	% 3	% 4
Itunduak	% 62	% 62	% 62	% 65	% 64	% 60	% 61	% 61	% 58	% 61
Artatu gabeak	% 33	% 33	% 34	% 31	% 32	% 37	% 36	% 36	% 39	% 35
Estaldura	**% 66,79**	**% 66,81**	**% 66,39**	**% 68,67**	**% 68,20**	**% 62,71**	**% 63,95**	**% 63,59**	**% 61,03**	**% 65,21**

Programaren estaldurak urte hauetan izan duen bilakaerak egonkortasun-ildoa erakusten du, azken hamarkadan % 65, inguruko batezbesteko tartean mantentzeko joerarekin. Hots, hiru haurretatik bi hortzen azterketara joan dira ekitaldi bakoitzean.


VI. taula: 2024an artatutako biztanleria, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera

		ARTATUTAKO BIZTANLERIA			ESTALDURA (%)		
ARABA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	16.136	502	9.837	10.339	% 1,61	% 31,48	% 33,09
NESKAK	15.112	441	9.445	9.886	% 1,41	% 30,23	% 31,64
PADI	31.248	943	19.282	20.225	% 3,02	% 61,71	% 64,72

		ARTATUTAKO BIZTANLERIA			ESTALDURA (%)		
BIZKAIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	47.874	736	31.777	32.513	% 0,79	% 34,02	% 34,81
NESKAK	45.527	644	30.367	31.011	% 0,69	% 32,51	% 33,20
PADI	93.401	1.380	62.144	63.524	% 1,48	% 66,53	% 68,01

		ARTATUTAKO BIZTANLERIA			ESTALDURA (%)		
GIPUZKOA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA	OSAKIDETZA	ITUNDUA	GUZTIRA
MUTILAK	32.399	2.769	17.142	19.911	% 4,38	% 27,10	% 31,48
NESKAK	30.853	2.498	16.375	18.873	% 3,95	% 25,89	% 29,84
PADI	63.252	5.267	33.517	38.784	% 8,33	% 52,99	% 61,32

5. irudia: PADIren estalduraren bilakaera orokorra, lurralde historikoaren arabera (2015 - 2024)



VII. taula: PADIren estalduraren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (2015 - 2024)

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
ARABA	% 66,57	% 66,18	% 65,73	% 69,00	% 68,35	% 62,18	% 63,88	% 63,85	% 61,31	% 64,72
GIPUZKOA	% 62,01	% 63,09	% 63,23	% 64,59	% 64,46	% 58,45	% 59,62	% 60,42	% 57,05	% 61,32
BIZKAIA	% 70,12	% 69,54	% 68,75	% 71,41	% 70,75	% 65,84	% 66,95	% 65,68	% 63,66	% 68,01
EAE	**% 66,79**	**% 66,81**	**% 66,39**	**% 68,67**	**% 68,20**	**% 62,71**	**% 63,95**	**% 63,59**	**% 61,03**	**% 65,21**


2024an estaldura orokorra handitu egin da hiru lurralde historikoetan; hala, Bizkaiak Araba eta Gipuzkoaren gainetik jarraitzen du (3 eta 6,7 puntu gainetik, hurrenez hurren).

VIII. eta IX. taulek PADIren erabilera aurkezten dute Osakidetzako Asistentzia Sanitarioa egiturazten duten Zerbitzu Erakunde bakoitzean. Datuek sare asistentzial bakoitzaren erabilera jasotzen dute (Osakidetza eta Sektore pribatuko gaitua).

VIII. taula: PADIren erabilera orokorra 2024an Erakunde Sanitario bakoitzean, estaldura-ehunekoen (handienetik txikienera), hornikuntza-moduaren eta sexuaren arabera ordenatuta.

ERAKUNDEA	BIZTANLERIA	Artatutako biztanleria			Mutilak		Neskak		Guztira (%)
		Guztira	OSAKIDETZA	PRIBATUA					
DEBABARRENA	6.426	4.704	1.000	3.704	2.389	% 37,18	2.315	% 36,03	**% 73,20**
URIBE	19.732	13.994	86	13.908	7.139	% 36,18	6.855	% 34,74	**% 70,92**
BARRUALDE-GALDAKAO	27.399	19.265	408	18.857	9.879	% 36,06	9.386	% 34,26	**% 70,31**
BILBO-BASURTU	24.783	16.641	520	16.121	8.483	% 34,23	8.158	% 32,92	**% 67,15**
ARABA	26.832	17.635	883	16.752	9.127	% 34,02	8.508	% 31,71	**% 65,72**
EZKERRALDE-ENKARTERRI	12.437	8.138	90	8.048	4.165	% 33,49	3.973	% 31,95	**% 65,43**
BARAKALDO-SESTAO	10.637	6.747	194	6.553	3.482	% 32,73	3.265	% 30,69	**% 63,43**
TOLOSALDEA	6.204	3.892	491	3.401	2017	% 32,51	1.875	% 30,22	**% 62,73**
DONOSTIALDEA	30.220	18.494	1.754	16.740	9.416	% 31,16	9.078	% 30,04	**% 61,20**
BIDASOA	6.484	3.863	890	2.973	2017	% 31,11	1.846	% 28,47	**% 59,58**
GOIERRI-UROLA GARAIA	9.544	5.575	1.032	4.543	2.850	% 29,86	2.725	% 28,55	**% 58,41**
DEBAGOIENA	5.890	3.308	197	3.111	1.683	% 28,57	1.625	% 27,59	**% 56,16**
ARABAKO ERRIOXA	1.313	277	45	232	116	% 8,83	161	% 12,26	**% 21,10**
EAE	**187.901**	**122.533**	**7.590**	**114.943**	**62.763**	% 33,40	**59.770**	% 31,81	**% 65,21**

6. irudia: PADIren estaldura (Osakidetzakoa eta itundua) Erakunde Sanitarioaren arabera-2024



Estaldura orokorrari dagokionez, Bizkaiko eremu sanitarioak nabarmendu behar ditugu, izan ere, horietako guztietan (Barakaldo-Sestaon izan ezik) batez besteko estaldura % 65 baino handiagoa da.

IX. taula: PADIren erabilera erlatiboa 2024an Erakunde Sanitario bakoitzean, sektore sanitario publikoaren (Osakidetza) kontsultetako estalduraren ehunekoaren arabera ordenatuta (handienetik txikienera)

ERAKUNDE SANITARIOA (ESI-A)	PADI, guztira	OSAKIDETZA	%	Itunduak	%
BIDASOKO ESI-A	3.863	**890**	**% 23,04**	2.973	% 76,96
DEBABARRENEKO ESI-A	4.704	**1.000**	**% 21,26**	3.704	% 78,74
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI-A	5.575	**1.032**	**% 18,51**	4.543	% 81,49
ARABAKO ERRIOXAKO ESI-A	277	**45**	**% 16,25**	232	% 83,75
TOLOSALDEKO ESI-A	3.892	**491**	**% 12,62**	3.401	% 87,38
DONOSTIALDEKO ESI-A	18.494	**1.754**	**% 9,48**	16.740	% 90,52
DEBAGOIENEKO ESI-A	3.308	**197**	**% 5,96**	3.111	% 94,04
ARABAKO ESI-A	17.635	**883**	**% 5,01**	16.752	% 94,99
BILBO-BASURTUKO ESI-A	16.641	**520**	**% 3,12**	16.121	% 96,88
BARAKALDO-SESTAOKO ESI-A	6.747	**194**	**% 2,88**	6.553	% 97,12
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-A	19.265	**408**	**% 2,12**	18.857	% 97,88
EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-A	8.138	**90**	**% 1,11**	8.048	% 98,89
URIBEKO ESI-A	13.994	**86**	**% 0,61**	13.908	% 99,39
EAE	**122.533**	**7.590**	**% 6,19**	**114.943**	**% 93,81**


2024an, erakunde sanitario guztietan, asistentzia itundua nagusitu zen Osakidetzaren baliabideekin emandako asistentziaren aldean. Osakidetzako kontsulta publikoei dagokienez, gehien erabiltzen direnak Gipuzkoakoak dira (% 6 eta % 23 bitarteko estaldura erlatiboa). Arabako sektore publikoan estaldura % 5ekoa da, eta Bizkaiko ESIetan ez da ehuneko horretara iristen.

Arabako Errioxan, haurren bertaratzea PADIko kontsultetara nabarmen txikia da. Horren arrazoiak dira, batez ere, eremu horretan biztanleria oso sakabanatuta egotea, gaitutako kontsulta gutxi eta irregularki sakabanatuta egotea, eta erakunde honetan hortz-zerbitzu publikorik ez egotea.

II. Bertaratzearen maiztasuna

Haurrek, 7 ta 15 urte artean, 9 ekitalditan erabil dezakete sistema, horietan baitaukate asistentzia jasotzeko eskubidea. Aldi horretan, sistema erabiltzeko patroia (bertaratzearen maiztasuna) honela sailkatzen da: "**jarraitua**" (PADI ekitaldi guztietan erabili du); "**ez da joaten**"; eta "**aldizkakoa**" (9 ekitaldi horietan behin edo gehiagotan joan da, baina ez guztietan).

7. irudia: Erabilera orokorra ("jarraitua", "aldizkakoa" edo "ez da joaten") adin-talde bakoitzean



X. taula: PADIren erabiltzaile kopurua eta beren bertaratzearen maiztasunari buruzko datuak

Adina	BIZTANLERIA	JARRAITUA	ALDIZKAKOA	EZ DA JOATEN
15 urte	22.374	5.184	15.760	1.430
14 urte	22.696	5.964	15.177	1.555
13 urte	22.373	6.227	14.538	1.608
12 urte	21.867	6.854	13.021	1.992
11 urte	20.419	6.821	11.569	2.029
10 urte	20.755	7.754	10.427	2.574
9 urte	20.118	8.415	8.490	3.213
8 urte	19.339	9.575	5.518	4.246
7 urte	17.960	11.717	0	6.243

Irteerako kohortean, 15 urtekoetan, % 23 joan zen PADIko dentistengana, estaldura ematen den bederatzi urteetan.

2024an, EAEko 15 urteko biztanleriaren % 94k gutxienez behin erabili du PADI, 7 urteko adinetik aurrera.

Urteko batez besteko erabilera (erabilera jarraitua eta aldizkakoa) 6 ekitaldikoa izan zen (6,18 nesken kasuan eta 5,89 mutilen kasuan). X. taulan, PADIren estaldura-garai osoko bertaratzearen maiztasuna ageri da, 15 urtera arte metatuta.

XI. taula: 15 urterekin metatutako bertaratzearen maiztasuna (9 ekitaldi), sexuaren arabera

2024ko ekitaldia	BIZTANLERIA	JARRAITUA	ALDIZKAKOA	EZ DA JOATEN
Neskak (15 urte)	10.738	2.540 (% 23,65)	7.628 (% 71,03)	686 (% 6,38)
Mutilak (15 urte)	11.636	2.644 (% 22,72)	8.132 (% 69,88)	744 (% 6,39)
PADI guztira (15 urte)	22.374	5.184 **(% 23,17)**	15.760 **(% 70,44)**	1.430 **(% 6,39)**

XII. taula: 2015 eta 2024 arteko aldian hartutako kohorteen erabileraren bilakaera.

Ekitaldiak >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Kohorte 2000 >	**61,51**									
Kohorte 2001 >	64,12	**61,70**								
Kohorte 2002 >	65,76	64,74	**62,88**							
Kohorte 2003 >	67,64	66,82	65,39	**63,40**						
Kohorte 2004 >	68,73	68,03	66,55	64,27	**63,35**					
Kohorte 2005 >	68,90	68,55	67,92	66,41	65,81	**62,97**				
Kohorte 2006 >	68,11	69,05	68,87	67,78	67,93	65,89	**58,34**			
Kohorte 2007 >	68,43	68,11	68,77	68,35	69,77	67,81	59,97	**59,12**		
Kohorte 2008 >	**66,59**	67,75	68,10	69,02	71,15	69,65	64,44	61,82	**59,26**	
Kohorte 2009 >		**65,69**	68,25	67,72	71,15	70,58	64,34	63,52	61,43	**58,59**
Kohorte 2010 >			**64,11**	64,70	70,50	70,21	64,30	64,85	63,28	62,21
Kohorte 2011 >				**65,54**	70,32	69,32	64,80	65,37	65,33	64,79
Kohorte 2012 >					**67,75**	69,55	63,87	65,41	65,25	66,48
Kohorte 2013 >						**67,53**	64,17	65,34	65,84	68,07
Kohorte 2014 >							**61,92**	65,4	65,12	68,29
Kohorte 2015 >								**64,85**	64,65	67,23
Kohorte 2016 >									**62,34**	66,92
Kohorte 2017 >										**65,32**
PADI >	**66,74**	**66,79**	**66,81**	**66,39**	**68,67**	**68,20**	**62,71**	**63,95**	**61,03**	**65,21**

Irteerako kohorteak (15 urte)

Sarrerako kohorteak (7 urte)

XII. taulak irudikatzen du kohorte bakoitzaren erabilera-ehunekoaren bilakaera aztertutako aldian, eta erakusten du sistemaren erabilera txikiagotzen dela adinak gora egiten duen heinean.

PADIa erabiltzeko joera handiena 10-11 urteko adin-tartean dago, adin hori hurbil baitago hortzak aldatzeko bigarren etaparen hasieratik. 12-13 urtetik aurrera, beherakada txiki bat ikusten da urteko azterketara joateko joeran.

13-15 urte bitartekoen erabilera-ehunekoa artatutako biztanleria osoaren batez bestekoa baino txikiagoa izan da (% 65,21).

Adin handiagoko kohorteetan PADIa gutxiago erabiltzeak azalduko luke 12 eta 14 urte artean tratatu gabeko txantxarren ehunekoa ez jaistea, azterlan epidemiologikoetan ikusi den gisa.

III. Hortz-asistentzia

PADIren protokolo klinikoek zehazten dutenez, esneko hortzerian txantxarrak izan dituzten haur guztiek pitzadura-zigilatzaileak izan beharko dituzte behin betiko haginetan. Era berean, arrazoi mediko edo sozialengatik arriskuan dauden paziente gisa jotzen diren haurrek prebentzio-tratamendu bera jaso beharko dute.

Emandako asistentziaren barruan sartzen dira, halaber, kaltetutako behin betiko hortzerian beharrezkoak izan diren konponketa-prozedurak. XIII. eta XIV. tauletan azaltzen dira asistentziaren bolumen orokorra eta 100 haurreko ordezkatzen duen profila.

A. Bertaratzearen banaketa, sexuaren arabera

XIII. taulak Asistentzia Orokorra irudikatzen du, kapitazio edo taloi bidezko ordainketan sartua.

XIII. taula: PADIren oinarrizko bertaratze orokorra 2024an. Sexuaren araberako banaketa

	Mutilak		Neskak		PADI, guztira	
	Tratamenduak	Profila	Tratamenduak	Profila	Tratamenduak	Profila
Azterketa	**62.763**	***% 100***	**59.770**	***% 100***	**122.533**	***% 100***
Zigilatzaileak	**5.450**	***% 8,68***	**5.330**	***% 8,92***	**10.780**	***% 8,80***
Garbiketak	**8.893**	***% 14,17***	**7.257**	***% 12,14***	**16.150**	***% 13,18***
Obturazioak	**7.488**	***% 11,93***	**7.786**	***% 14,67***	**16.325**	***% 13,32***
Erauzketak	**893**	***% 1,42***	**863**	***% 1,44***	**1.756**	***% 1,43***
Hortz-mamiaren tratamendua	**116**	***% 0,18***	**123**	***% 0,21***	**239**	***% 0,20***

XIV. taulak traumatismoen edo malformazioen ondorioz behar den asistentzia gehigarria jasotzen du. Hura hortz-ekintza bakoitzeko ordaintzen da modu gehigarrian, kapitazio bidez (taloia).

XII. taula: PADIren asistentzia gehigarria, 2024an. Sexuaren araberako banaketa.


	MUTILAK	%	NESKAK	%	PADI, guztira	%
Asistentzia gehigarria duten biztanleak	**697**	***% 62***	**427**	***% 48***	**1.124**	***% 100***
Jarduera berezien kopurua	**1.013**	***% 63***	**595**	***% 37***	**1.608**	***% 100***
Berreraikuntzak traumatismoagatik	**856**	***% 84,50***	**506**	***% 85,04***	**1.362**	***% 84,70***
Bestelako tratamendu gehigarriak	**157**	***% 15,50***	**89**	***% 14,96***	**265**	***% 15,30***

Artatutako biztanleria osotik (122.533 haur), % 1 inguruk (1.124) laguntza gehigarria behar izan du, batez ere aurreko hortzetako traumatismoengatik eta malformazioengatik. Deigarria da tratamendu osagarrien proportzioa handiagoa dela mutiletan nesketan baino (% 63 eta % 37, hurrenez hurren).

Asistentzia gehigarriaren zatirik handiena hautsitako hortzak berreraikitzean datza (% 85). Gainerako asistentzia bereziaren % 15,3 endodontziak, apikoformazioak, ferulizazioak, erauzketak, obturazioak aldi baterako hortzetan dagokion pieza iraunkorraren agenesiagatik, koroa protesikoaren bidezko estaldurak eta zuriketak izan dira.

B. Asistentzia orokorraren banaketa adin-taldeen arabera.

8. irudia: Emandako asistentzia orokorraren ehunekoa 100 haurreko, adin-talde bakoitzeko, 2024an




XV. taula: Oinarrizko asistentzia orokorra adinaren arabera 2024an

Adina >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	PADI
Azterketak	11.732	12.941	13.525	14.173	13.900	14.538	14.495	14.119	13.110	122.533
Zigilatzaileak	2.268	2.142	1.400	999	767	834	800	905	665	10.780
Obturazioak	624	1.264	1.205	1.380	1.594	1.947	2.365	2.640	3.306	16.325
Erauzketak	147	167	180	258	249	255	205	169	126	1.756
Pulpako Tratam.	11	19	13	18	29	26	36	44	43	239

Kohorte bakoitzean emandako asistentzia orokorrak PADIren protokolo klinikoetan aurreikusitako ereduari jarraitzen dio, eta zigilatzaileak nagusitzen dira obturazioen gainetik haur gazteen taldean. Adinak aurrera egin ahala, zigilatze/obturazio erlazioa alderantzikatu egiten da. Era berean, erauzketak eta hortz-mamiaren tratamenduak edo endodontziak egiteko beharra oso maila baxuetan mantentzen da adin guztietan.

C. PADIko asistentziaren bilakaera

9. irudia: Emandako oinarrizko asistentziaren ehunekoaren bilakaera: 2015-2024



XVI. taula. Asistentzia orokorraren bilakaera 2014-2023

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Azterketak	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888	120.419	118.112	122.533
Zigilatzaileak	19.368	17.689	17.260	16.375	16.876	11.692	12.518	12.302	10.714	10.780
Obturazioak	20.210	20.590	19.999	20.220	19.865	15.434	16.696	15.705	14.829	16.325
Erauzketak	1.227	1.302	1.367	1.371	1.302	1.105	1.205	1.242	1.391	1.756
Pulpako tratam.	372	460	366	355	330	213	452	362	299	239

Ekitaldi bakoitzean emandako Asistentzia Orokorraren guztizko bolumenak eta profilak behera egin du 2015-2024 aldian; pitzaduren zigilatzeen aplikazioan nabarmen, eta apur bat obturazioen kasuan. Zigilatzaileen aplikazio orokorrak % 44 egin du behera hamarkada batean, eta biztanleriaren % 9an aplikatu izan dira 2024ko ekitaldian.

XVII. taulak azken hamarkadan traumatismoen edo malformazioen ondorioz asistentzia gehigarria jaso duten biztanleen bilakaera erakusten du.


XVII. taula: Emandako asistentzia gehigarria izan duen biztanleriaren bilakaera (2015-2024)

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Artatutako biztanleria	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888	120.419	118.112	122.533
Tratamendu gehigarriarekin	1.636	1.663	1.654	1.572	1.558	1.005	1.170	1.269	1.119	1.124
Asistentzia gehigarriaren %	% 1,32	% 1,31	% 1,28	% 1,20	% 1,19	% 0,84	% 0,95	% 1,05	% 1,02	% 0,92

D. Asistentzia-profilak, horniduraren arabera (Itundua / Osakidetza)

2024an, PADIn emandako asistentzia orokorraren profilak aurreko ekitaldietako bilakaerari jarraitzen dio, eta Osakidetzako sareen profilen eta itundutako kontsulten arteko aldea erakusten du.

10. irudia: Tratamendu erlatiboen ehunekoaren alderaketa, asistentzia-sarearen arabera (publikoa/itunpekoa) 2024an



XVIII. taula: ***Oinarrizko asistentzia orokorra, sare asistentzialaren (Osakidetza / Itundua) arabera aplikatua***

Datu orokorrak	Osakidetza	Itundua	PADI
Azterketak	7.590	114.943	122.533
Zigilatzaileak	2.906 ***(% 38,29)***	7.874 **(% 6,85)**	10.780 **(% 8,80)**
Obturazioak	2.331 ***(% 35,69)***	13.692 **(% 11,91)**	16.325 **(% 13,32)**
Erauzketak	225 ***(% 3,21)***	1.512 **(% 1,32)**	1.756 **(% 1,43)**
Hortz-mamien tratamenduak	84 ***(% 0,80)***	178 **(% 0,15)**	239 **(% 0,20)**

Sare bakoitzean (Osakidetza eta itundua) ematen den asistentziak oso profil desberdina du. Osakidetzan, zigilatzaileen proportzioa itunduko sarearena baino 5 aldiz handiagoa da, eta obturazioen proportzioa itunduko sarearen hirukoitza da. Era berean, Osakidetzako dentistek artatutako biztanleriak erauzketa eta endodontzia gehiago behar izan du. Hala, konplexutasun kliniko eta sozial handiagoa duten erabiltzaileek erabili dute sare publiko hori.

IV. Fakturazioa

2024ko aurrekontu-ekitaldian, PADIrako **itundutako familiako dentistek 6.024.144 euro** fakturatu dizkiote Osasun Sailari (52,41 euro, batez beste, artatutako pertsona bakoitzeko).
Zenbateko horretatik, 5.920.760 euro (% 98,28) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (hauek jasotzen ditu, besteak beste: hortzen azterketak, pitzadura-zigilatzaileak eta beharrezkotzat jotzen diren prebentzio-prozedurak, obturazioak, erauzketak eta hortz-mamietako tratamenduak edo endodontziak behin betiko hortzerian); eta 103.384 euro (% 1,72) asistentzia gehigarrirako ordainketari (ebakortzetako eta letaginetako malformazioen eta traumatismoen ondorioz behar izan ziren tratamenduak).

IX. taula: Asistentzia itunduaren kostuen bilakaera (eurotan) azken hamarkadan.

Ekitaldia >	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Asistentzia orokorra	4.935.137	5.043.695	5.133.398	5.211.226	5.228.433	4.863.102	4.956.925	4.858.291	5.400.459	5.920.760
Asistentzia gehigarria	137.855	131.895	125.406	123.304	122.122	82.446	95.955	102.828	111.476	103.384
ITUNDUA, GUZTIRA	5.072.992	5.175.590	5.258.804	5.334.530	5.350.555	4.945.548	5.052.880	4.961.119	5.511.935	6.024.144
Artatutako biztanleria	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904	114.315	111.510	114.943
Kostua pertsona bakoitzeko	43,90	43,49	43,61	43,32	43,41	43,06	43,22	43,40	49,43	52,41
Kapitazio bidezko kostua %	% 97,3	% 97,5	% 97,6	% 97,7	% 97,7	% 98,33	% 98,10	% 97,93	% 97,98	% 98,28
Kostu gehigarriaren %	% 2,7	% 2,5	% 2,4	% 2,3	% 2,3	% 1,67	% 1,90	% 2,07	% 2,02	% 1,72

Gaitutako profesionalek, urtean zehar, tarifa finko bat jasotzen dute lagundutako haur bakoitzeko ekitaldi bakoitzean (urteko kapitazioa). Tarifa horren barruan sartzen da hortz-osasunaren egoeraren jarraipena egitea, bai eta asistentzia orokorrean deskribatutako prebentzio- eta berrezartze-prozeduretan doako laguntza ematea ere. Tarifa horiek, guztira, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari fakturatutako zenbatekoaren % 98 dira.

***Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko 37/2023 Dekretu* berria** indarrean sartu da, eta 2023ko maiatzaren 15ean eguneratu ziren profesional bakoitzak kobratzen duen tarifa esleitutako pertsona bakoitzeko urteko onarpen-taloiaren bidez (kapitazio bidezko ordainketa).

Kohorte zaharrenek beste zenbateko bat ordaintzen dute, kontuan hartuta patologia aurreratuenek edo zabalenek lan-karga handiagoa dakartela eta ohikoagoak direla haur zaharrenen artean. Zehazki, 54,07€ (12 eta 15 urte bitartean) eta 49,20€ (7-11 urte bitartean).

Osakidetzan PADIn arreta ematen duten **familiako dentisten** jarduerari egotz dakiokeen kostuari dagokionez, 388.226€ izango lirateke artatutako haur bakoitzeko; batez beste 49,07€ haur bakoitzeko.

V. HAURREN HORTZEN OSASUNA EUSKADIN

HAURREN BEHIN BETIKO HORTZERIAREN HORTZ-OSASUNARI BURUZKO AZKEN AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKOAREN EMAITZA NAGUSIAK

Txantxar-patologia behin betiko hortzerian:


Behin betiko hortzerian, prebalentzia % 2,6koa da 7 urtekoen artean, % 25,9koa 12 urtekoen artean eta % 33,4koa 14 urtekoen artean.

CAOD indizea 0,03koa, 0,50ekoa eta 0,78koa da 7, 12 eta 14 urtekoen artean, hurrenez hurren.

Sendatze-indizea (obturatutako hortzen proportzioa, erasandako hortz guztien artean) % 11,9, % 67,8 eta % 78,6 da 7, 12 eta 14 urtekoen artean, hurrenez hurren.

13. eta 14. irudiek gaixotasunaren prebalentziak (txantxarrik gabeko biztanleriaren ehunekoa adierazita) eta txantxar-indizeek azken 35 urteetan izandako bilakaera erakusten dute, hurrenez hurren.


13. irudia: Behin betiko hortzerian txantxarrik ez duten haurren ehunekoaren bilakaera:



7 urtekoen taldean, 1988-2008 aldian behin betiko hortzerian txantxarrik ez zuten eskola-umeen kopuruak gora egin ondoren (% 86tik % 98ra), parametro hori egonkortu egin zen, % 97 inguruan. Jakina, zenbat eta patologia gutxiago egon, orduan eta zailagoa da emaitza ikusgarriak lortzea, eta garrantzitsua da kasu horietan emaitza onak finkatzea. Gauza bera gertatzen da 12 urtekoen taldean, azken 15 urteetako datuen antzekoak baitira. 12 urteko 4 ikasletik 3, gutxi gorabehera, ez dute txantxarrik.

14 urteko nerabeen taldea oso garrantzitsua da, PADIren "estaldura publikoaren amaierara" gehien hurbiltzen den adin-taldea baita, 15 urterekin gertatzen dena. Adin-talde horretako adierazleek erakusten dute txantxarraren prebalentzia zertxobait handitu dela (% 26 2018an eta % 33,4 gaur egun).

14. irudia: Behin betiko hortzeriako txantxar-indizeen bilakaera (1988-2023)




7 urtekoen taldeko behin betiko hortzeriari dagokionez, CAOD indizea 0,28tik (1988) 0,08ra (1998) jaitsi da; 0,04 (2008) 2018an errepikatu da, eta gaur egun, berriz, 0,03 da.

12 urtekoen taldean, CAOD indizea 2,3koa (1988), 1,05ekoa (1998), 0,52koa (2008) eta 0,46koa (2018) izan zen, eta gaur egungo balioa 0,50ekoa da; igoera hori ez da esanguratsua. 12 urtekoen CAOD indizearen balio horrek txantxar-maila txikienak dituzten herrialdeen artean kokatzen du EAE, OMEren sailkapenaren arabera.

14 urterekin, CAOD indizea 3,98 (1988), 1,73 (1998), 0,90 (2008) eta 0,56 (2018) izan da, gaur egungo baliora (0,78) iritsi arte. Igoera hori estatistikoki esanguratsua da, baina osasun publikoan izandako benetako eragina erlatiboa da (txantxarrak dituzten 2 hortz berri aztertutako 280 hortzeko).

15. irudia: Konponketa-indizea (KI) 12 eta 14 urterekin



KI indizea CAOD indizearen osagai guztiekiko obturatutako hortzen ehunekoa da: **KI = O/CAOD x 100**
KI 12 urterekin = % 68
KI 14 urterekin = % 78,6
KI 7 urterekin = % 12

7 urtekoen taldean, CAOD indize osoa ia C osagaiak osatzen du (tratatu gabeko txantxarra – *Caries sin tratar*), oso prebalentzia txikiko egoera baten barruan.

12 urtekoen taldean, C osagaiak indize osoaren % 30 hartzen du, eta zifra hori % 20,5era jaisten da 14 urtekoen taldean. A osagaia (hortzen absentzia – *Ausencias*) CAOD indizearen % 1-2 baino ez da 12 eta 14 urtekoen taldeetan. O osagaia (obturazioekin tratatutako behin betiko hortzak – *dientes permanentes tratados con obturaciones*) CAOD indizearen % 68 da 12 urtekoen taldean, eta % 78,6 14 urtekoen taldean.

EUSKADIKO HAURREN AHO-HORTZETAKO OSASUNAREN V. AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKORAKO SARBIDEA:

Gainerako aldagaiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hemen eskura daiteke azterlan osoa:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estudio_salud_bucodental/eu_def/adjuntos/V-eae-ko-haurren-aho-hortzetako-osasunaren-azterketa-epidemiologikoa.pdf

ONDORIOAK

1.- 2024. urtean PADI programa garatzeko 35 ekitaldi egin dira, eta lortu da EAEko biztanleen % 94k programaren prestazioak jasotzea 15 urte bete baino lehen.

2.- EAEn bizi ziren 7-15 urteko 187.901 haurren artean, guztira 122.533k jaso zuten asistentzia. Erabilera-ehunekoa % 65,21 izan zen 2024an. 3 haurretatik 2, gutxi gorabehera.

3.- Prestazioa jasotzeko eskubidea duten 100 haurretatik 4 Osakidetzako dentista publikoek artatu zituzten, 61 dentista gaituek, eta 35 ez ziren urteko azterketara joan.

4.- Artatutako biztanleriaren artean, % 93,81 sektore pribatuko profesional gaituek artatu dituzte. Osasun Sailak 6.024.144 euro bideratu zituen horretarako (52,41 euro pertsonako, batez beste).

5.- 2024an, 1.029 dentista zeuden asistentzia-dispositiboan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gaitutako 708 hortz-klinikatan banatuta, Osakidetzako aho-hortzetako osasuneko 38 talderekin batera.

6.- PADIren koadro fakultatiboko dentistek emandako asistentziaren barruan sartzen dira beharrezkoak diren prebentzio-jarduerak eta tratamendu konpontzaileak. Osakidetzako kontsultetako profil asistentzialak erakusten du esku-hartze gehien (prebentziozkoak zein konpontzaileak) behar dituzten erabiltzaileek erabiltzen dutela PADIko asistentzia.

7.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hortzetako politikari esker, haurren hortzen osasunaren indizea mailarik altuenean mantendu da, gure inguruko herrialdeen artean. Eskola-adinean dauden haurren % 74k ez du txantxarrik behin betiko hortzerian 12 urterekin, eta % 67k 14 urterekin. PADIn gaitutako profesionalen asistentziak horretan lagundu du neurri handi batean.

8.- Txantxarragatiko estaldurari eta asistentzia orokorrari dagokienez, ez da alde esanguratsurik ikusten sexuaren alderdian. Deigarria da, ordea, hortzetako traumatismoek eragindako tratamendu berezien proportzioa handiagoa izatea gizonezkoetan.

9.- Prebentziozko tratamenduen proportzio txikia mantentzen da (fisura-zigilatzaileak) enpaste edo obturazio bidezko konponketen aurrean. Hala ere, datu epidemiologikoek erakusten dute zigilatzaileen aplikazio orokorraren ehunekoa % 20 inguru izateak azalera oklusaletako txantxarra murrizten lagunduko lukeela (lesio gehienak bertan gertatzen dira).

10.- 2020tik aurrera EAEn edateko uren fluorazio-politika bertan behera gelditu zenez, garrantzitsuagoa da arriskuan dagoen biztanleria identifikatzen duten gizarte-politikak indartzea. Biztanleria hori, normalean, maila sozioekonomiko txikiagokoak izaten dira, eta txantxar-lesio gehienak metatzen dituzte.

I. ERANSKINA

PADIren erabilera lurralde historiko bakoitzean, adin-taldeen, hornitzeko moduaren (publikoa/itundua) eta sexuaren arabera, 2024ko ekitaldian

ARABA

Adin-tartea	Sexua	Biztanleria	Osakidetza	Itundua	Artatuak	Estaldura
6 - 7 2017	Mutilak	1.600	79	965	1.044	% 65,25
	Neskak	1.665	65	935	1.000	% 60,06
	Guztira	31.248	943	19.282	20.225	% 64,72
7 - 8 2016	Mutilak	1.652	71	1.018	1.089	% 65,92
	Neskak	1.612	70	1.059	1.129	% 70,04
	Guztira	3.264	141	2.077	2.218	% 67,95
8 - 9 2015	Mutilak	1.768	68	1.147	1.215	% 68,72
	Neskak	1.682	66	1.071	1.137	% 67,60
	Guztira	3.450	134	2.218	2.352	% 68,17
9 - 10 2014	Mutilak	1.773	60	1.156	1.216	% 68,58
	Neskak	1.740	54	1.135	1.189	% 68,33
	Guztira	3.513	114	2.291	2.405	% 68,46
10 - 11 2013	Mutilak	1.767	60	1.128	1.188	% 67,23
	Neskak	1.612	42	1.050	1.092	% 67,74
	Guztira	3.379	102	2.178	2.280	% 67,48
11 - 12 2012	Mutilak	1.886	54	1.171	1.225	% 64,95
	Neskak	1.689	39	1.096	1.135	% 67,20
	Guztira	3.575	93	2.267	2.360	% 66,01
12 - 13 2011	Mutilak	1.906	41	1.147	1.188	% 62,33
	Neskak	1.775	32	1.108	1.140	% 64,23
	Guztira	3.681	73	2.255	2.328	% 63,24
13 - 14 2010	Mutilak	1.933	34	1.106	1.140	% 58,98
	Neskak	1.810	40	1064	1104	% 60,99
	Guztira	3.743	74	2.170	2.244	% 59,95
14 - 15 2009	Mutilak	1.851	35	999	1.034	% 55,86
	Neskak	1.665	33	927	960	% 57,66
	Guztira	3.516	68	1.926	1.994	% 56,71
ARABA	Mutilak	16.136	502	9.837	10.339	% 64,07
	Neskak	15.112	441	9.445	9.886	% 65,42
	Guztira	31.248	943	19.282	20.225	% 64,72

GIPUZKOA

Adin-tartea	Sexua	Biztanleria	Osakidetza	Itundua	Artatuak	Estaldura
6 - 7 2017	Mutilak	3.063	318	1558	1.876	% 61,25
	Neskak	2,816	263	1536	1.799	% 63,88
	Guztira	5.879	581	3.094	3.675	% 62,51
7 - 8 2016	Mutilak	3.273	338	1.672	2.010	% 61,41
	Neskak	3.163	294	1.729	2023	% 63,96
	Guztira	6.436	632	3.401	4.033	% 62,66
8 - 9 2015	Mutilak	3.370	306	1.865	2.171	% 64,42
	Neskak	3.364	285	1.844	2.129	% 63,29
	Guztira	6.734	591	3.709	4.300	% 63,86
9 - 10 2014	Mutilak	3.482	287	1.957	2.244	% 64,45
	Neskak	3.355	297	1.871	2.168	% 64,62
	Guztira	6.837	584	3.828	4.412	% 64,53
10 - 11 2013	Mutilak	3.460	285	1.927	2.212	% 63,93
	Neskak	3.315	261	1.842	2.103	% 63,44
	Guztira	6.775	546	3.769	4.315	% 63,69
11 - 12 2012	Mutilak	3.902	318	2.118	2.436	% 62,43
	Neskak	3.561	284	1.922	2.206	% 61,95
	Guztira	7.463	602	4.040	4.642	% 62,20
12 - 13 2011	Mutilak	3.900	292	2.098	2.390	% 61,28
	Neskak	3.681	266	1.927	2.193	% 59,58
	Guztira	7.581	558	4.025	4.583	% 60,45
13 - 14 2010	Mutilak	3.917	310	1.977	2.287	% 58,39
	Neskak	3.858	284	1971	2255	% 58,45
	Guztira	7.775	594	3.948	4.542	% 58,42
14 - 15 2009	Mutilak	4.032	315	1.970	2.285	% 56,67
	Neskak	3.740	264	1733	1997	% 53,40
	Guztira	7.772	579	3.703	4.282	% 55,10
GIPUZKOA	Mutilak	32.399	2769	17.142	19.911	% 61,46
	Neskak	30.853	2498	16.375	18.873	% 61,17
	Guztira	63.252	5.267	33.517	38.784	% 61,32

BIZKAIA

Adin-tartea	Sexua	Biztanleria	Osakidetza	Itundua	Artatuak	Estaldura
6 - 7 2017	Mutilak	4.613	105	2959	3.064	% 66,42
	Neskak	4.341	97	2852	2.949	% 67,93
	Guztira	8.954	202	5.811	6.013	% 67,15
7 - 8 2016	Mutilak	4.927	99	3.304	3.403	% 69,07
	Neskak	4.712	95	3.192	3.287	% 69,76
	Guztira	9.639	194	6.496	6.690	% 69,41
8 - 9 2015	Mutilak	5.208	88	3.468	3.556	% 68,28
	Neskak	4.726	73	3.244	3.317	% 70,19
	Guztira	9.934	161	6.712	6.873	% 69,19
9 - 10 2014	Mutilak	5.296	84	3.671	3.755	% 70,90
	Neskak	5.109	65	3.536	3.601	% 70,48
	Guztira	10.405	149	7.207	7.356	% 70,70
10 - 11 2013	Mutilak	5.229	80	3.588	3.668	% 70,15
	Neskak	5.036	63	3.574	3.637	% 72,22
	Guztira	10.265	143	7.162	7.305	% 71,16
11 - 12 2012	Mutilak	5.571	74	3.835	3.909	% 70,17
	Neskak	5.258	69	3.558	3.627	% 68,98
	Guztira	10.829	143	7.393	7.536	% 69,59
12 - 13 2011	Mutilak	5.574	64	3.762	3.826	% 68,64
	Neskak	5.537	71	3.687	3.758	% 67,87
	Guztira	11.111	135	7.449	7.584	% 68,26
13 - 14 2010	Mutilak	5.703	78	3.690	3.768	% 66,07
	Neskak	5.475	63	3502	3565	% 65,11
	Guztira	11.178	141	7.192	7.333	% 65,60
14 - 15 2009	Mutilak	5.753	64	3.500	3.564	% 61,95
	Neskak	5.333	48	3222	3270	% 61,32
	Guztira	11.086	112	6.722	6.834	% 61,65
BIZKAIA	Mutilak	47.874	736	31.777	32.513	% 67,91
	Neskak	45.527	644	30.367	31.011	% 68,12
	Guztira	93.401	1380	62.144	63.524	% 68,01

II. ERANSKINA

PADIren erabilera orokorra, udalerrien eta hornidura-motaren arabera (Osakidetza/Itundua), 2024an

ARABA

UDALERRIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUAK	ESTALDURA	%
AGURAIN-SALVATIERRA	649	12	345	357	% 55,01
ALEGRIA-DULANTZI	352	4	236	240	% 68,18
AMURRIO	1066	3	826	829	% 77,77
AÑANA	8	1	4	5	% 62,50
ARAMAIO	129	0	70	70	% 54,26
ARMIÑON	21	0	13	13	% 61,90
ARRAIA-MAEZTU	88	0	54	54	% 61,36
ARRATZUA-UBARRUNDIA	95	0	54	54	% 56,84
ARTZINIEGA	220	0	165	165	% 75,00
ASPARRENA	137	5	63	68	% 49,64
AYALA-AIARA	289	0	208	208	% 71,97
BAÑOS DE EBRO-MAÑUETA	16	2	5	7	% 43,75
BARRUNDIA	73	2	26	28	% 38,36
BERANTEVILLA	43	0	18	18	% 41,86
BERNEDO	26	0	13	13	% 50,00
CAMPEZO-KANPEZU	97	7	59	66	% 68,04
ELBURGO-BURGELU	67	0	37	37	% 55,22
ELTZIEGO	103	3	13	16	% 15,53
ELVILLAR-BILAR	20	0	1	1	% 5,00
ERRIBERAGOITIA-RIBERA ALTA	77	3	49	52	% 67,53
HARANA-VALLE DE ARANA	11	0	6	6	% 54,55
IRUÑA OKA-IRUÑA DE OCA	389	14	256	270	% 69,41
IRURAIZ-GAUNA	44	0	23	23	% 52,27
KRIPAN	12	0	0	0	% 0,00
KUARTANGO	33	3	25	28	% 84,85
LABASTIDA-BASTIDA	167	9	54	63	% 37,72
LAGRAN	10	0	3	3	% 30,00
GUARDIA	119	6	17	23	% 19,33
LANCIEGO-LANTZIEGO	86	0	21	21	% 24,42
LANTARON	45	0	17	17	% 37,78
LAPUEBLA DE LABARCA	85	3	11	14	% 16,47
LAUDIO-LLODIO	1468	11	1076	1087	% 74,05
LEGUTIO	214	5	105	110	% 51,40
LEZA	20	0	5	5	% 25,00
MOREDA DE ÁLAVA-MOREDA ARABA	17	2	1	3	% 17,65
NAVARIDAS	16	0	0	0	% 0,00
OKONDO	113	1	81	82	% 72,57
OYÓN-OION	441	15	37	52	% 11,79
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	19	0	11	11	% 57,89
RIBERA BAJA-ERRIBERABEITIA	145	4	54	58	% 40,00
SAMANIEGO	23	1	6	7	% 30,43
SAN MILLÁN-DONEMILIAGA	59	0	34	34	% 57,63
URKABUSTAIZ	162	3	99	102	% 62,96
VALDEGOVÍA-GAUBEA	54	1	24	25	% 46,30
VILLABUENA DE ÁLAVA-ESKUERNAGA	15	0	3	3	% 20,00
VITORIA-GASTEIZ	23501	818	14815	15633	% 66,52
YÉCORA-IEKORA	28	0	2	2	% 7,14
ZALDUONDO	13	0	7	7	% 53,85
ZANBRANA	30	0	15	15	% 50,00
ZIGOITIA	168	5	104	109	% 64,88
ZUIA	165	0	111	111	% 67,27
ARABA	**31.248**	**943**	**19.282**	**20.225**	**% 64,72**

GIPUZKOA

UDALERRIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUAK	ESTALDURA	%
ABALTZISKETA	23	1	10	11	% 47,83
ADUNA	67	1	49	50	% 74,63
AIA	260	7	153	160	% 61,54
AIZARNAZABAL	105	3	62	65	% 61,90
ALBISTUR	44	3	34	37	% 84,09
ALEGIA	174	25	67	92	% 52,87
ALKIZA	54	3	30	33	% 61,11
ALTZAGA	21	0	9	9	% 42,86
ALTZO	40	4	25	29	% 72,50
AMEZKETA	82	4	32	36	% 43,90
ANDOAIN	1373	31	877	908	% 66,13
ANOETA	220	14	130	144	% 65,45
ANTZUOLA	246	1	99	100	% 40,65
ARAMA	16	0	8	8	% 50,00
ARETXABALETA	673	7	435	442	% 65,68
ARRASATE-MONDRAGÓN	1.822	135	1.024	1.159	% 63,61
ASTEASU	145	3	87	90	% 62,07
ASTIGARRAGA	911	10	564	574	% 63,01
ATAUN	201	18	83	101	% 50,25
AZKOITIA	1.310	114	826	940	% 71,76
AZPEITIA	1.571	200	811	1.011	% 64,35
BALIARRAIN	23	0	9	9	% 39,13
BEASAIN	1.367	276	503	779	% 56,99
BEIZAMA	12	0	11	11	% 91,67
BELAUNTZA	32	0	5	5	% 15,63
BERASTEGI	93	2	62	64	% 68,82
BERGARA	1.282	32	550	582	% 45,40
BERROBI	59	4	44	48	% 81,36
BIDANIA-GOIATZ	55	3	28	31	% 56,36
DEBA	421	21	299	320	% 76,01
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	14.016	798	7.485	8.283	% 59,10
EIBAR	2.385	691	1.030	1.721	% 72,16
ELDUAIN	28	3	19	22	% 78,57
ELGETA	124	6	89	95	% 76,61
ELGOIBAR	1.141	88	821	909	% 79,67
ERRENTERIA	3.327	574	1.554	2.128	% 63,96
ERREZIL	65	0	31	31	% 47,69
ESKORIATZA	382	7	155	162	% 42,41
EZKIO-ITSASO	60	3	25	28	% 46,67
GABIRIA	39	6	20	26	% 66,67
GAINTZA	10	0	4	4	% 40,00
GAZTELU	25	0	10	10	% 40,00
GETARIA	278	8	173	181	% 65,11
HERNANI	1.734	24	1.046	1.070	% 61,71
HERNIALDE	13	0	6	6	% 46,15
HONDARRIBIA	1.385	146	638	784	% 56,61
IBARRA	384	45	210	255	% 66,41
IDIAZABAL	260	39	85	124	% 47,69
IKAZTEGIETA	48	3	23	26	% 54,17
IRUN	5.099	744	2.335	3.079	% 60,38
IRURA	241	23	151	174	% 72,20
ITSASONDO	69	6	25	31	% 44,93
LARRAUL	22	0	20	20	% 90,91
LASARTE-ORIA	1.592	37	894	931	% 58,48
LAZKAO	604	19	320	339	% 56,13
LEABURU	34	4	11	15	% 44,12
LEGAZPI	716	10	495	505	% 70,53
LEGORRETA	152	7	54	61	% 40,13
LEINTZ-GATZAGA	16	0	12	12	% 75,00
LEZO	496	30	293	323	% 65,12
LIZARTZA	65	10	24	34	% 52,31
MENDARO	242	17	175	192	% 79,34
MUTILOA	24	6	9	15	% 62,50
MUTRIKU	489	21	301	322	% 65,85
OIARTZUN	940	40	607	647	% 68,83
OLABERRIA	63	5	30	35	% 55,56
OÑATI	1216	9	677	686	% 56,41
ORDIZIA	1039	80	478	558	% 53,71
ORENDAIN	34	1	16	17	% 50,00
OREXA	12	0	2	2	% 16,67
ORIO	643	12	370	382	% 59,41
ORMAIZTEGI	133	14	27	41	% 30,83
PASAIA	1342	77	687	764	% 56,93
SEGURA	180	37	54	91	% 50,56
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	361	65	193	258	% 71,47

GIPUZKOA (jarraipena)

UDALERRIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUAK	ESTALDURA	%
TOLOSA	1831	242	917	1.159	% 63,30
URNIETA	517	18	258	276	% 53,38
URRETXU	575	55	269	324	% 56,35
USURBIL	626	9	418	427	% 68,21
VILLABONA	545	37	304	341	% 62,57
ZALDIBIA	187	19	60	79	% 42,25
ZARAUTZ	1968	81	1247	1328	% 67,48
ZEGAMA	192	18	58	76	% 39,58
ZERAIN	30	6	3	9	% 30,00
ZESTOA	393	23	170	193	% 49,11
ZIZURKIL	274	18	134	152	% 55,47
ZUMAIA	1072	3	759	762	% 71,08
ZUMARRAGA	812	101	310	411	% 50,62
GIPUZKOA	**63.252**	**5.267**	**33.517**	**38.784**	**% 61,32**

BIZKAIA

UDALERRIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUAK	ESTALDURA	%
ABADIÑO	757	98	482	580	% 76,62
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	732	2	481	483	% 65,98
AJANGIZ	43	1	30	31	% 72,09
ALONSOTEGI	260	9	165	174	% 66,92
AMOREBIETA-ETXANO	1876	41	1339	1380	% 73,56
AMOROTO	24	0	18	18	% 75,00
ARAKALDO	24	0	15	15	% 62,50
ARANTZAZU	47	0	32	32	% 68,09
AREATZA	130	1	82	83	% 63,85
ARRANKUDIAGA	110	0	66	66	% 60,00
ARRATZU	46	0	28	28	% 60,87
ARRIETA	34	0	24	24	% 70,59
ARRIGORRIAGA	963	7	721	728	% 75,60
ARTEAGA	67	0	55	55	% 82,09
ARTZENTALES	58	0	35	35	% 60,34
ATXONDO	116	4	81	85	% 73,28
AULESTI	49	0	34	34	% 69,39
BAKIO	257	0	160	160	% 62,26
BALMASEDA	705	3	476	479	% 67,94
BARAKALDO	8474	64	5274	5338	% 62,99
BARRIKA	141	0	90	90	% 63,83
BASAURI	2845	91	1813	1904	% 66,92
BEDIA	79	0	43	43	% 54,43
BERANGO	884	2	567	569	% 64,37
BERMEO	1474	2	920	922	% 62,55
BERRIATUA	113	0	70	70	% 61,95
BERRIZ	457	18	271	289	% 63,24
BILBO	24523	511	15956	16467	% 67,15
BUSTURIA	133	1	88	89	% 66,92
DERIO	790	1	541	542	% 68,61
DIMA	144	0	109	109	% 75,69
DURANGO	2627	48	1864	1912	% 72,78
EA	50	0	27	27	% 54,00
ELANTXOBE	22	0	15	15	% 68,18
ELORRIO	676	28	499	527	% 77,96
ERANDIO	2011	9	1342	1351	% 67,18
EREÑO	21	0	11	11	% 52,38
ERMUA	1289	89	830	919	% 71,30
ERRIGOITI	50	0	35	35	% 70,00
ETXEBARRI	1493	5	1144	1149	% 76,96
ETXEBARRIA	67	0	43	43	% 64,18
FORUA	78	1	41	42	% 53,85
FRUIZ	59	0	44	44	% 74,58
GALDAKAO	1921	6	1686	1692	% 88,08
GALDAMES	74	0	51	51	% 68,92
GAMIZ-FIKA	123	0	74	74	% 60,16
GARAI	38	0	23	23	% 60,53
GATIKA	159	0	113	113	% 71,07
GAUTEGIZ ARTEAGA	60	0	39	39	% 65,00

BIZKAIA (jarraipena)

UDALERRIA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	ITUNDUAK	ESTALDURA	%
GERNIKA-LUMO	1603	2	1189	1191	% 74,30
GETXO	5994	28	4556	4584	% 76,48
GIZABURUAGA	19	0	18	18	% 94,74
GORDEXOLA	151	1	108	109	% 72,19
GORLIZ	559	10	333	343	% 61,36
GUEÑES	596	1	429	430	% 72,15
IBARRANGELU	41	0	27	27	% 65,85
IGORRE	455	1	296	297	% 65,27
ISPASTER	78	0	48	48	% 61,54
IURRETA	363	5	217	222	% 61,16
IZURTZA	23	0	16	16	% 69,57
KARRANTZA HARANA-VALLE DE CARRANZA	190	0	94	94	% 49,47
KORTEZUBI	60	1	35	36	% 60,00
LANESTOSA	14	0	8	8	% 57,14
LARRABETZU	220	0	158	158	% 71,82
LAUKIZ	130	0	67	67	% 51,54
LEIOA	3016	18	2070	2088	% 69,23
LEKEITIO	538	0	406	406	% 75,46
LEMOA	396	1	289	290	% 73,23
LEMOIZ	135	0	93	93	% 68,89
LEZAMA	243	1	169	170	% 69,96
LOIU	181	0	125	125	% 69,06
MALLABIA	98	8	55	63	% 64,29
MAÑARIA	69	0	48	48	% 69,57
MARKINA-XEMEIN	516	2	332	334	% 64,73
MARURI-JATABE	92	0	62	62	% 67,39
MENDATA	30	0	21	21	% 70,00
MENDEXA	33	0	19	19	% 57,58
MEÑAKA	66	0	46	46	% 69,70
MORGA	20	0	17	17	% 85,00
MUNDAKA	142	0	76	76	% 53,52
MUNGIA	1827	5	1279	1284	% 70,28
MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ	36	3	23	26	% 72,22
MURUETA	30	0	20	20	% 66,67
MUSKIZ	652	0	390	390	% 59,82
MUXIKA	162	1	112	113	% 69,75
NABARNIZ	28	0	20	20	% 71,43
ONDARROA	603	2	303	305	% 50,58
OROZKO	254	2	153	155	% 61,02
ORTUELLA	641	5	418	423	% 65,99
OTXANDIO	169	0	120	120	% 71,01
PLENTZIA	344	6	230	236	% 68,60
PORTUGALETE	3131	13	2103	2116	% 67,58
SANTURTZI	3495	58	2123	2181	% 62,40
SESTAO	2163	130	1279	1409	% 65,14
SONDIKA	393	2	274	276	% 70,23
SOPELA	1496	4	1133	1137	% 76,00
SOPUERTA	257	1	148	149	% 57,98
SUKARRIETA	22	0	12	12	% 54,55
TRUCIOS-TURTZIOZ	37	0	10	10	% 27,03
UBIDE	13	0	6	6	% 46,15
UGAO-MIRABALLES	359	5	276	281	% 78,27
URDULIZ	527	0	317	317	% 60,15
URDUÑA-ORDUÑA	385	1	275	276	% 71,69
USANSOLO	468	0	2	2	% 0,43
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN	871	5	592	597	% 68,54
ZALDIBAR	319	14	123	137	% 42,95
ZALLA	719	1	513	514	% 71,49
ZAMUDIO	271	0	199	199	% 73,43
ZARATAMO	123	1	74	75	% 60,98
ZEANURI	105	0	67	67	% 63,81
ZEBERIO	101	0	74	74	% 73,27
ZIERBENA	114	0	69	69	% 60,53
ZIORTZA-BOLIBAR	42	0	33	33	% 78,57
BIZKAIA	**93401**	**1380**	**62144**	**63524**	**% 68,01**